


Nafarkaria

• ostirala • 2002ko otsailaren 15a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Ilbeltzaren azken egunean zendu zen Inge Morath, New Yorkeen. Haren betazalak betiko itxi dira, eta haren Leicak ez ditu aterako argazki gehiago. Ongi ezagutu zutenek emakume paregabea zela zioten, xumea, sotila, laketgarria, argia eta hunkigarria. Sarritan izan zen gure artean. Iruñea biziki zuen maite. 1954. urtean izan zen aurrenekoz hemen, eta orduko sanferminetan atera zituen argazkiak

garaiko bizimoduaren isla dira egun. Haren altxorra gure artean dago orain, eta betiko. Haren oroipena bezala.

Inge Morathen SAN PERMÍN altxorra



Iruñea • Musikagintzaren topagune izateko xedearekin, 'Kantuzale' aldizkaria argitaratu berri du Nafarroako Kantuzaleen Elkarteak

Marcelo Argañaraz • «Argentinatik hona etorri arren, han gelditu direnekin egiten dugu lan»

Baztan-Bidasoa • Bide berdea trenaren arrastotik

Garai bateko trenbide zaharra berreskuratzeko asmoa agertu du Bertizko Turismo Partzuergoak

Aspaldiko asmoa betetzeko zorian daude Baztan-Bidasoako bizilagunak zein Bertizko Turismo Partzuergoko kideak, lehiaketara atera baitu Partzuergoak XX. mendearen lehenbiziko erdian Irundik Elizondora joaten trenaren bidea txukuntzeko eta bide berdea osatzeko proiektua.

Espainiako Ingurugiro Ministerioak Renfe, Feve eta Espainiako Trenbideen Fundazioaren laguntzarekin antzina-ko trenbideak berreskuratzeko egitasmoa da bide berdeena. Finen, trenen garai bateko bideak turismorako, kirol ekintzarako eta aisialdirako azpiegitura bihurtzea da bide berdeekin lorzen dena. Gaur egun zeregin horietarako erabiltzen da nagusiki trenbidea, baina inguruko baliabideen seinalazioa, bideen eta tunelen hobekuntza eta bertzelako azpiegiturak sortzea ekarriko du honek guztiak.

Dagoeneko Turismo Zerbitzuarekin proiektua erredaktatzeko komenioa sinatua du Bertizko Turismo Partzuergoak, eta proiektua lehiaketa fasean dago. Hala ere, zenbait ezaugarri aitzinatu daitezke dagoeneko. Nagusiki oinez, bizikletan eta zaldiz ibiltzeko bidea izanen da, eta gainerako ibilgailuentzat bertatik ibiltzeko debekua zabalduko da, larrialdi, zerbitzu eta nekazaritza lanetarako ibilgailuentzat izan ezik. Zorua hobetuko da, baina ingurumena errespetatuz eta ahalik eta gutien eraginez.

43 kilometro luze

Endarlatsatik Elizondorako bide zatia hobetuko da (kanpoan geldituko da Irundik Endarlatsarako), eta 43 kilometro horietan dauden zortzi tuneletan argia paratuko da, eta tuneletan hobekuntzak eginen dira. Eguz-

ki energiaren bidez argituko dituzte tunelak. Halaber, zirkulazioa duten bidegurutzeetarako soluzioak proposatuko dira (Berako saihesbiderako eta Lesakako eta Doneztebeko bidegurutzeetarako, nagusiki).

Baina honek guztiak bertzelako eskaintzak ere sortuko ditu. Atsedean guneak (bost kilometrotik behin bat, guti goiti-beheiti; zortzi denetara) eta bainu

eta kirolerako eremuak finkatu eta egokituko dira, eta behatokiak sortu, aparkaleku eta sarbideekin batera. Honen inguruan sor daitezkeen eduki turistikoekin azterketa bilduko du egitasmoak, eta Bidasoa ibaiaren bazterrean doanez, ur bazterren errekuperazio naturala egiten da. Hori guztia informazio gidekin eta mantenimendu zein kudeaketa planekin osatuko da.

Ibilbidea ia osorik da gaur egun. 1898an hasi zen tren, Irundik Endarlatsarako tartean, meatzaritza lanetarako. 1916tik aitzinera Elizondoraino luzatu zioten ibilbidea, eta jendea eramateko erabiltzen hasi ziren. 51,5 kilometro luze zen, eta 23 geltoki zituen. 1956ko abenduaren 31n utzi zion ibiltzeari.

→ Jon Abril



Doneztebe eta Endarlatsa lotzen dituen bide berdea.

● GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Iruñea
•
Alboka
ikastaroa

IRUÑEKO ORTZADAR EUSKAL Folklore Taldeak alboka jotzen ikasteko ikastaroa antolatu du musikan oinarritzako jakintza duen ororentzako. Bihar hasiko da 45 orduko ikastaroa, eta ekainaren bata arte iraungo du. Larunbatetan izango da, goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara, 60 euroren truke. Ortzadar taldearen egoitzan egingo da ikastaroa, Descalzos karrikaren 65. zenbakian, alegia.

Folklorearen alorrean egiten diren ikerketak bultzatu nahian, Ortzadarrek antolatzen dituen Kultura Tradizionalaren Gaineko Ikastaro Monografikoen barruan kokatzen da alboka ikastaroa. Aurten Ikastaro Monografikoen XV. aldia beteko da.

Alboka ikastaroa Gari-koitx Izagirre eta Aritz Ezeizak emanen dute, Hernaniko Musika Eskolako irakasleek, Juan Mari Beltran etnomusikologo eta Alboka taldeko kidearen zuzendaritzapean. Ikastaroan gai hauek landuko dituzte: Euskal Herriko musika tresnak, alboka eta bere ingurunea, putz-egite jarraituaren teknika, albokaren elementuak, soinuaren osaketa eta afinazioa, digitazioa eta eskalak, praktika ariketak eta erreperitorioak.

Ikastaroa egiteko baldintza norberak bere alboka eramatea da. Hala ere, ikasle bakoitzak alboka eros dezan erraztasunak ematen ahaleginduko da Ortzadar.

→ Kristina Berasain

irulegitik

JOJO BIDART



Nork erranen zuen duela hogeitun urte Irulegiko artzain etxe batetik abiatu ziren irrati uhainek horrelako segida eta oihartzuna ukanen zutela.

Lehen egunetan erdi gordezka entzuna zen irrati sortu berriak, hastapeneko mesfidantza eta dudak gaindituz, konfiantza eta adiskidantzako giro bat sortu du pixkanaka.

Proiektua asmatu eta xutik ezarri dutenak, Euskal Herriko hainbat egitura eraikiak izan direnetan bezala, kementsu ari izan dira orduak kondatu gabe.

Euskararen balioa eta egungotasuna erakutsiz, hastapeneko militanteen lanari esker, Iparralde barnealde huntan sendi zen euskararen atxikimenduak ukan du

lokarri. Gainera, tokiko gertakarien ezagutzeko eta barnatzeko, hots, lekuko biziaren berri emanen zuen tresna baten behar handia zen. Bi helburu nagusi horiekin bat egin dute, aski fite, irratiari eta entzuleek.

20 urte hauetan, gauza ainitz aldatu da formaren aldetik, baina mamia beti hor da. Irulegiko Mentako ardi marraken orde, Donibane Garaziko kamioi eta autoen tutak entzuten dira. Konpakt disko eta ordenagailuek hartu dute disko beltz marratu eta kazeten segida.

Langile berriei esker, Irratia profesionalizatu da emankizunak hedatuz gau eta eguneko ordu guziz. Denbora berean, entzuleen laguntza azkartu da: urte guziz herriz herri egiten den sustengu kanpainak

frogatzen digun bezala. Oihartzuna sustengu elkarrean antolatu ekitaldiek eta, batez ere, Euskal Herria zuzenean bezalako mugimenduen erakusten digute duela 20 urteko kemen hura ez dela deuseztatua eta, nahiz ez den beti bide erraxa, ez dela oraino sasiak hartua.

Ez gara bidean lokartzeko irriskuan, urrunago joateko xedeak hasiak baitira obratzen: Har-Hitza izeneko egoitza berria; Amikuze aldeko antena; eta, Iparraldeko beste 2 euskal irrati lagunekin abiatu dugun elkarlanaren moduan, Euskal Herri guziko irrati artean hedatu nahi den Arrosa izeneko proiektua.

Aupa Irulegiko Irratia, eta segi aitzina!

Irulegiko irratiak 20 urte!

Iruñea •

'Aho bete kantuz'

Euskal Herriko kantu eta musikazaleen topagune izan nahi duen 'Kantuzale' aldizkaria argitaratu berri dute.

AHO BETE KANTUZ' LELOAK ematen dio ongiatorria *Kantuzale* aldizkaria eskuetan duen irakurleari. Atera berria den 0 zenbakiaren azalean Anari, Ruper Ordorika, Anje Duhalde, Benito Lertxundi, Niko Etxart eta bertze ageri dira. Atzealdean, udazkeneko paisaia koloretsu eta beroa. Kanpoaldeko irudi atseginak barrualdea begiratzeko gonbita egiten du, eta orrialdeetan barna musikagintzaren eta kantugintzaren inguruko hainbat erreportaia, elkarrizketa, iritzi, historia eta ekarpen aurkitzen ahal dira. Erraterako, Joseba Tapiaren, Pettiren, Juan Mari Beltranen eta Marino Goñi GOR disketxeko arduradunaren hitzak jaso dituzte. Musikagintzaren inguruko erakusketak, kontzertuak, diskoak eta iritziak ere ageri dira. Kantu bilduma atalean, Jaun Baruak eta Adeste Fideles kantuen hitzak jasotzen dira, eta partiturak ere bai. Euskal Curriculum Musikala ere hizpide da Euskal Kantuzaleen Elkartearen zereginaren inguruan hausnarketa egiten duen artikuluan.

Musikarien topagunea

«*Kantuzale* aldizkariak topagunea bat izan nahi du, musikagintzan eta kantugintzan dabiltzan guztiei euskarri bat eskaini nahi izan diegu, esparru honetan dagoen hutsunea betetzearren eta iritziak jasotzeko topagunea sortzearren», adierazi zion NAFARKARIAri Nafarroako Kantuzaleen Elkartearen lehendakari eta aldizkariaren sustatzaile Eugenio Arraizak. «Musikaren eta kantuaren alorrean gaudenok elkar eza-gutzeko bidea landu nahi du aldizkariak, kantuaren bizitza aberasteko eta zabaltzeko asmoz, eta Euskal Herriko bazter guztie-

Euskal Herriko Kantuzaleen Elkarteak egia bihurtu du urteetako ametsa. Kantuaren eta musikaren kariatara topagune izan nahi duen *Kantuzale* aldizkariaren aurreneko zenbakia kalean da dagoeneko.

taraino kantuaren taupadak helarazteko asmoz», gaineratzen du Arraizak.

Kantuzale aldizkariaren aurreneko zenbakia berriki atera da argitara. 26 orrialdez osatuta dago, koloreetako argazkiekin,

eta Nabarrerian enpresa arduratu da aleaz. «Proba moduko alea izan da, edonork eskuratzeko ahal du, doan, baina baldintza bakarrarekin: azken orrialdean dagoen galdetgia betetzea eta Euskokulturera

bidaltzea. J. Beunza kalea, 13bis 31014 Iruñea», zehaztu du Eugenio Arraizak. Aldizkariaren 1.000 ale argitaratu dituzte, eta martxotik aurrera argitaratuko den aldizkariaren egitura zehaztu eta finkatu nahi izan dute horrela, irakurle guztien parte-hartzearekin. «Aldizkari bizia egin nahi izan dugu; parte-hartzea eta trukea bultzatuz, hurbileko produktua izan nahi du *Kantuzale*-k», azpimarratzen du Arraizak.

Ildo horretan, aurreneko zenbaki honetan azken bi urteotan euskal prentsan atera diren artikulua, erreportaia eta elkarrizketak bildu dituzte. «Behin-behineko egin dugu aurreneko zenbaki hau; orain, jendearen iritzia bildu, atalak zehaztu eta kazetarien laguntza behar dugu, kolaboratzaile finkoen zerrenda osatu nahi dugu, eta horrelaxe osatuko dugu lan taldea», dio Kantuzaleen Elkartearen lehendakariak.

Izaera irekia

Euskal Herriko Kantuzaleen Elkartearen ametsa egia bihurtu da aldizkariarekin. Arraizaren aburuz, argitarapenak elkarrearen bazkide sarea egituratzeko, elikatze eta aberasteko ere balio behar du. «Harpidetza sistema eskaintzen dugu, 35 euro urteko eta 10 zenbakiren trukean». Azkenik, herri musikaren garrantzia goraipatu nahi dute argitalpen honen bidez. «Ez da adituentzako aldizkaria izanen; jende guztiarentzat eginiko aldizkaria da, musika eta kantuzaletasuna sustatzeko xedearekin», zehaztu du Arraizak.

Kantuzale aldizkariaren zuzen guztien zain dago, ikusi, irakurri, disfrutatu eta azken orrialdeko galdetgia bete eta bidali. Mesede egiten diezue eta!

→ Kristina Berasain



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Pipatzen

Takoneran, paseoan, Zaldi Eroarekin egiten dut topo. Tabakoa utzi duela esaten dit, Ducadosak erretzen zituela, pilo bat, egunero, ordu oro. Hilabete oro dirutza ematen ziola estatuari pozoia kopuru handietan barnertzearen truke. Esaten dit kristoren lasaitua hartu duela eta gupidaz begiraten digula orain erretzaileoi.

Nik, nire pipa ahotik atereaz, pozten naizela esaten diot, baina ezin izango niokeela, inondik inora, erretzeari utzi, uko egin, laga edo dena delakoa. Nire kasuan, pipatzearena Literatur Munduarekiko ditudan loturen artean kokatzen dudala. «Begira», esaten diot, «ni itsasoratan dabilen ontzi bat bezala naiz, eta Literatura portua da, eta soken bidez lotzen naiz Literaturari, eta horietako amarra bat pipa hau da». Eta pipa erakusten diot, Galesko bruyère enbor on batean egindako artelana.

«Urte oro Burley edo Latakia tabakoei bete eta Altxorraren Uhartea irakurtzen dut Larraburu-Eneko lorategian dudan harrizko banku batean. Ondoan, uhartearen tropikalitasuna ongi irudikatzearen, banbu basotxo bat landatzeko agindua eman nuen aspaldian. Memento horretan, sinetsiezadazu, Literaturarekin birrezkontzen naizela sentitzen dut. Ezin dezaket irakurraldi hori tabakorik gabe irudikatu ere! Pena da tabakoa utzi izana, gonbita egingo nizuke bestela, biok elkarrekin irakurraldia egiteko».

Zaldi Eroak ezetz esaten dit, ez dela batere penagarria, pozik egoteko modukoa dela zeren, besteak beste, Ducadosak ez du irudimena batere laguntzen. «Bat ere ez!», segitzen du. «Nik Ducadosa piztu eta nire ondoan ez nuen inongo tropikalitasunik sentitzen, ez banbu, ez altxor, ez literatura, ez ostiarik! Askota jota, goizeko zazpitan edaten diren 'sol y sonbrak' gogortzen nituen, minor eta fariasen hodeitxo baten azpian edaten diren horiek, anisaren usain sarkor hori eta baita igeltxoarena ere, eta Marca eta As aldizkariak tabernaren mahaietan zabalduak eta atuna eta ozpina barran, eta batzuek, ordu horietan, koñaka edaten dutela ere ikustearren harridura.»

Arrazoia duela aitortu behar dut. Literatura ez da inondik inora ageri Ducadosarekin! ●

Inge Morath argazkilari handia zendu berri da, baina hain gogoko zituen San Fermin jaien argazkiak Iruñean geratuko dira. Honatx erakusketan biltzen diren argazkietako batzuk.



Iruñea begi ninietan eta bihotzean

«ARGAZKIAK ATERATZEA ARNESA HARTzea bezala da niretzat. Argazki ona topaketa baten modukoa da, zorte kutsu bat dago. Beti begira egon behar duzu, erne, une egokiaren zain. Baina, horretaz gain, etengabe bilatzen ari zarenaren erantzuna izan behar du irudiak». Inge Morath argazkilariarenak dira hitzok. 1999. urtean izan zen azkeneko gure artean eta, orduan erabat osasuntsu bazegoen ere, orain betiko ihes egin digu. Ilbeltzaren azkeneko egunetan zendu zen, New Yorken, 79 urte zituela. Haren irudiak, alta, gure oroimenean egonen dira betiko. Bereziki, 1999. urteko ekainean Iruñeko Udalak erosi zion bildumaren irudiak; 1954. urteko sanferminetan egindako argazkien bilduma, hain zuzen ere. 8.500.000 pezeta ordaindu zituen Udalak 88 argazki osatuta zegoen bildumarengatik (51.086 euro). «Orain beren etxera itzuli dira argazkiak, Iruñera, beren sorlekura», erran zuen memento horretan, pozik, Ingek.

Iruñea bilduma baten jabe

Arestian aipatutako irudiak bitan ikusi ahal izan dira gurean. Aurreneko erakusketa 1997. urtean izan zen, Zapateria karrikako 40. zenbakiko kultur aretoan. «30.000 bisitari izan zituen erakusketak. Inoiz izan ditugun erakusketarik ikusienetakoa», gogoratu du Javier Manzanosek, Iruñeko Udaleko kultur teknikariak. Gerora ere ikusi ahal ziren 88 argazki horiek, Udalak bilduma erosi zuen urtean. «1999. urteko udan, hiru hilabetez edo, ikusgai izan ziren berriro argazki horiek. Oraingo honetan Gaiarre antzokian», zehaztu dio Manzanosek NAFARKARIAri.

1998. urtean Inge Morathen atzera begirakoa ikusi ahal izan zen Zapateria karrikan. Mende honetan izan diren aldaketen leku-

Inge Morathek harreman estua izan zuen oso Iruñearekin, eta bere heriotzaren ondoren, gurekin izanen da betiko

Ernest Hemingway sanferminetako idazlea izan zen; Inge Morath, aldiz, gure jai handien argazkilaria izan zen. 1954. urtean Iruñean atera zituen argazki xumeak mundu zabalean izan dira ikusgai. Entzierroak, kilikiak, umeak, karrikak... Oro har, garai hartako Iruñeko bizimoduaren, giroaren eta biztanleen mamia irudikatu zuen.

ko, Ingeren argazkiak bere izaeraren isla ziren. «Nik denbora behar dut aldaketak sumatzeko eta aldaketa horiek irudi bilakatzeko». Haren irudiak mundu txikiak osatzen zituzten beren baitan, eta bertan bera islatzen zen. «Bi begiekin ateratzen ditut argazkiak. Bata irekita izaten dut, errealtatea ikusteko, eta bertzea itxita, nire barne munduari so». Ildo horretan, haren irudietan sarritan geure buruari egin izan dizkiogun galderen erantzunak aurki daitezke. «Irudi onak gutxien pentsatzen duzun mementoan sortzen dira. Hala ere, prestutasuna izan behar duzu. Begiaren eta buruaren arteko nahasketa egokia behar da argazki on baten aurrean zaudela jakiteko». Haren hitzak berriro ere. «Nire uste apalean, interesgarriena argazkilari aunitzek memento jakin batean jaso nahi dutenaz aparte dago».

Handik urtebetera, Zapateria aretoan

Inge Morath

«Argazkilariarentzat gaurko eguna baino ez da existitzen. Horregatik nik egunero ateratzen ditut argazkiak»

berriro ere, Santiagorako bidearen argazkiak paratu zituzten. Inge Morathek 1998. urtean, 75 urterekin, Donejakue bidea egin zuen, oinez, oso-osorik.

Iruñearekin izan zuen harreman estua eta emankorra 1954. urtean hasi zen. Aurretik Ernest Hemingwayren *Fiesta* (Jai) liburua irakurria zuen Ingek. Urte hartan Robert Delpire, editorea eta Dominique Aubier idazlearekin etorri zen Iruñera, sanferminetako liburua egiteko xedearrekin. 1955. urtean argitaratu zen liburua hura, *Guerre q la tristesse* (Tristurari Gerra), Frantzia. Izenburua Inge Morathen argazki batetik hartu zuen liburua. Argazki horretan base-ritar bat ageri zen, sanferminetako azokan, nora ezean, begirada galdurik. Haren atzean, feria txosna batean, *Guerra a la tristeza* (Tristurari gerra) irakur zitekeen. Liburua zentsuratu egin zuten gurean, eta duela bi

urte, 1999. urtean, Lola Garridok argitaratu zuen, Ingeren lagun minak. Sanferminak biziki maite izan zituen Ingek. «Jai biribilak dira. Amets egiten dut itzultzeko mementoarekin», erran zuen.

Mendeko argazkilari onenetakoa Inge Morath (Graz, Austria, 1923) mende honetako argazkilari onenetakoa izan da, eta kazetari argazkigintzaren aitzindaria. 50eko hamarkadan Magnun agentzian egindako lana goraiatu izan dute nazioartean.

Gerora, Ingek mende honetako artista eta pertsonaia garrantzitsuenak erretratatu zituen bere Leiza argazki makinarekin. «Ez nuke bertze edozeinengatik aldatuko». Tartean, Ernesto Giacometti, Pablo Picasso, Joan Miro, Henry Moore, Pablo Neruda, Audrey Hepburn, Marilyn Monroe, Jean Cocteau eta Yves Saint Laurent irudikatu zituen. Erretrato gehienak zuri-beltzean egiten zituen. Horrela zuen nahiago.

1962. urtean, Arthur Miller dramaturgoarekin ezkondu zen, eta geroztik New Yorken bizi izan zen. Elkarrekin hainbat liburu argitaratu zituzten; bertzeak bertze, Txina eta Errusiaren ingurukoak. «Elkarri iradokizunak egiten dizkiogu. Oso erlazio emankorra da», aipatu zuen Ingek. «Argazkigintzarekin poesia egiten du», erran zuen Mille-erek Inge hildakoan.

«Argazkilariarentzat gaurko eguna baino ez da existitzen. Horregatik, nik egunero ateratzen ditut argazkiak». Haren azkeneko lanak irailaren 11z geroztik New York hirian gertatutakoak jasotzen ditu. Otto Muller-Verlag argitaletxeak aurki karrikaratu du lan hori: New York. Bertan, Dorre Bikiak erori ondoren hiriko biztanleek hildakoei egin zizkieten dolumin eta omenaldi oroigarriak biltzen dira.

Iruñeko Udalak ere, aurtan, haren agurraren urtean, erakusketa berezi bat prestatzeko nahia agertu du. Gu, berriro ere, haren argazkietara hurbilduko gara; Ingeren begirada xumea sumatu, hunkitu eta, memento labur horretan, bera eta gu geu sakonkiago ezagutu dugu elkar.

→ Kristina Berasain



Tristurari Gerra

Inge Morath

«1954. URTEKO UZTAILAREN 4AN, GOIZ-GOIZEAN, PARISTIK Iruñera abiatu gara, Simca txiki batean. Hiri ederra da, zelai nabarren erdian kokatua. Etxeak harrizkoak dira, eta karrikak, estuak. Teilatua zorrotzak, euri aunitz egiten duen seinale. Alta, orain eguzkia distira egiten ari da, eta horrelaxe izanen da azken eguna arte».

Ailegatu eta berehala irten gara karrikara. Ageria da zerbait garrantzitsua gertatzeaz dagoela. Jende guztia jai prestatzeko lanetan dihardu. Karriketan, entzierroaren ibilbidean, egurrezko hesiak ipintzen ari dira. Antzinako erritual honetan, bertako gazteek odolean daramate suhartasunaren ametsa. Entzierroa ordenatua da, opera baten moduan, baina arrakatsua.

Ospitalean agure batek entzierroan zaurituko direnak jasotzeko oheak prestatu ditu. Haren aburuz, inor zauritzekotan, kanpotarrak zaurituko dira, ez baitakite nola korritu zezenen aurrean. Arratsaldean, kafeak, tabernak eta plazak jendez mukuratu egoten dira. Zarata, hala ere, oraindik ez da oso ozena. Jaiaren aurreko gauetan gaude. Hurrengo goizean Udaletxe plaza jendez gainezka dago. Orain, jendeak jai arropak jantzi ditu: emakume gehienak oraindik beltzez jantzen dira; aldiz, gizonak, gazteak eta neskatilak zuriz daude, lepoan zapi gorria dutela. Ikusmenaren zurrumurrua agerikoa da. Bat-batean, San Fermin elizako kanpaiak dilindan hasi dira. Goizeko hamabiak dira. Nik ere dantza egin beharra daukat, argazki kamera eskuan, jendartean. Barre egiten dute eta lan egiten ere uzten didate. Goizaldeko ordu bietan joan naiz lotara: hurrengo goizean lehen entzierroa korrituko da. Egunsentian emakumeak, umeak eta agureak lehoi eta balkoietan daude. Gazteak, berriz, karriketan. Ni balkoi batean nago, bertatik den-dena ikusten dut. Segundo gutxi batzuetan dena amaitu da. Hiriaren kanpoaldean feria dago: loteria saltzaileek aberastasuna prometatzen dute; emakume batek panpina bat irabazi berri du tonbolan eta, duen aurrepigiaren arabera, ez du sinesten hainbesteko zortea izatea; baserritar bat, alkandora beltza soinean eta txapela buruan, geldirik dago, ingurukoari so, harrututa; haren atzean argi batzuek jaiaren leloa izaten ahal dena irudikatzen dute: *Tristurari Gerra*.

Sei jaiegun handien ondoren, bertze egun arrunt bat da gaurkoa. Argiak, musika, erraldoiak eta kilikiak hurrengo urtera arte itxaron beharko dira. Sanferminetara itzuliko garen mementoarekin amets egiten dugu».



Zure alboan seguru sentitzen naiz



Iragan larunbatean Iruñean eginiko manifestazioa.



Operación Triunfo telebista saiko sei finalistak.

JKLHP. Labiano, Yolanda Barcina, Nuria Iturriagoitia, Miguel Sanz sentitzen naiz; nire seme-alabek, Larraitzek eta Jonek, Jonek eta Larraitzek, jite susmagarriko koordinakunde sigladuna sortu dute eta: Juan Kruz Lakastaren Aurkako Hiritar Plataforma; etxeko txoko guztietara barreiatu dituzten afixetan ageri den akronimoaren arabera, JKLHP.

Separatistak.

Nafarroako gobernu erregionalistako eledun ilehoridunak koordinakundeez dioena, *separatista* hutsak direla —herri antolamenduon giblean interes politiko ustelak daudela dioelarik, zeharka eta beti bezain dotore bada ere, horixe esaten ari baita—, egia biribila da kasu honetan. JKLHPko bi kideak —0,01, Iruñeko Udaltzaingoaren zenbaketa

metodoaren arabera; izan ere, Gazteluko plazaren aldeko larunbateko manifestazioan 1.500 lagun zenbatu zituzten— *separatista* hutsak dira: Larraitzek zazpi urte ditu, Jonek 11, gela berean egiten dute lo, eta independentzia nahi dute (haur bat gela bat; hau da, bi gela). Arazoa da honako zutabe honen izenburua, Monte Carlotik, lizentzia literarioa besterik ez dela. Monte Carlo taberna inspirazio iturri izaten da maiz, baina ez, ordea, idazteko toki. Idatzi, etxeko nire bulegoan idazten dut. Beste gela librerik ez dugu etxean, eta, hartara, seme-alabek bulegoa haietako barentzako logela bilakatu nahi dute.

Posibilistak.

Nolanahi ere, Iturriagoitiaren teoriak baieztauz, JKLHPko kideek afixetan, eskuorrietan, eztabaidetan darabilten

aldarrikapen nagusia ez da independentzia, jakin badakite-eta gauzatzen zaila dela. Posibilismoaren bidetik joz, eta boterea —neu— nekatzeko ahaleginean, *Operación Triunfo* ikusteko eskubidea aukeratu dute aldarri karrankari, temoso, etengabe moduan. **Joaquín Pratsen Gente Joven** —egungo gazteek uler dezaten, **Gaizka Arangurenen Izar Bila**—ren aurrekari espainiarra— eta **Mercedes Milaren Gran Hermanoren** arteko hibrido *popularrari* —aintzat har dadila hitzaren adierarik politikoena— jasanezina deritzot. Batik bat, jasanezina zait odolgabete telebista akademia lortzen ari den arrakasta erabatekoa. Hori dela eta, ez ditut aintzat hartzen seme-alaben ke-xuak: lagun guztiek ikusten dutela, bezperako gala ez dutelako ikusi ikastolako jostaldietako solasaldietan baztertuta

geratzen direla... Edo, hobeto adierazita, ez nituen aintzat hartzen, joan den larunbatera arte.

Peñistak.

Joan den larunbatean JKLHPko kideak Gazteluko plazaren aldeko manifestaziora eraman nituen, esperientzia aberasgarria izanen zitzaielakoan, benetako koordinakunde jator baten jardura bertatik bertara ezagutu zezaten. Ikusi zituzten afixak, eskuorriak, aldarrikapenak, jai giroa, txarangak. Ikusi zuten hori guzti hori, bai eta peñetako kideak manifestazioaren amaieran Iruñeko udaletxeko atearen ondoan *Operación Triunfo* kantua abesten ere: «A tu lado me siento seguro...». Astelehenean hiritarren erdiak *Operación Triunfo* ikusi zuten. Horien artean nire familiako kide guztiak geunden.



panpilonia zirkus

Millanen biloba

Adin-adinekoek gogoan daukate Millan tratulariaren planta ederra, Merced karrakako azienda tratularia, alegia. Abizenez *Berrio* —nola ez—, hiriko ijitoen aristokrazia, jende diruduna. Millanen emaztea, egunero, Gazteluko Plazan agertzen zen, soineko luze eta beltz, ederki apaindua, Plazako erregina bailitzan. Millanen bilobak, ordea, galdua zuen arruntean aitaxi-amatxien eite noble eta zintzoa, patuak zorigaitzoko bidegurutze batean bizitzea eskaini baitzion, hots, Descalzos, San Lorentzo, Jarauta eta Sanduandia karriken arteko gurutzean, noiz eta heroina jaun eta jabe zenean. Hura gurutzebide latza gertatu zitzaion Tolini.

Izan ere, Millanen biloba Tolin izan zen beti, aitarengandik hartutako izengoitia. Mutil luzanga, kankailua, baldarra, gizajo

eta errukigarria. Gizajo eta errukigarria *la txuri*—rekin ez zebilenean, jakina, baina Tolinek beti labana eraman zuen berekin, edozein momentutan ateratzeko prest. Eta atera zuen, ezin konta ahala aldiz, Takoneran eta bere agintepeko karriketan, hots, Descalzosko iturria, San Saturnino eliza eta San Frantzisko plaza artean. Orduan, bai, *la txuri*—ren distirapean, larderia handiko mutila gertatzen zen, hasieran behintzat, eta mehatxatutako jende orok sosak ematen zizkion: hogeiturok, berrogeita hamar duro, mila pezeta, gehienez ere. Gazte frankok sos batzuk prest izaten zituen hari emateko, —«to, har hitzak»—, eta izan zen arrats berean bi aldiz atrakatua gertatu zen gazterik. Behin batean, gazte koadrila batek apustu egin zuen ea nor ausartzen ote zen



Descalzos karrikan zehar ibili zen sarri Tolin, Millanen biloba.

Enrike Diez de Ultzurrun

LANDER F. DE ARROIAIBE/ ARGAZKI PRESS

baina, afera ilunagotetan ere nahasirik ibili zen eta, azkenean, heroinak erditik jo zuen, drogak jana baitzebilan, duela hamabost-hogeituro urteko gaitza izan baitzen hura. Droga Jarauta aldeko etxe askotan sartu eta gazte andana eraman zuen Beritxitosera,

gauzez takonera zeharkatzera, bizitzako lehenbiziko soldata kolkoan gordeta. Beldurra zer zen sentitu nahi zuten. Bat bakarra ausartu eta onik atera zen, ez baitzen Tolin labana agertu.

Etxabeetako sarrailak ere behartzen zituen, eta, behin, horietako batean egokিতuta, barnea hutsik ikusi, halere zerbait feriatu behar, zer eta komuneko giroa. Ala-

hala ijitoak nola paioak. Heriotzak, bada, denak berdindu zituen. Zimaur giro hits hartan zainetaraino lokazturik, Tolinek bere gorputz herbal eta mendrea batera eta bertzerara arrastaka eraman zuen, harik eta Sanduzelaiko taberna bateko kumunetan, gauerdiz, *la txuri*:k lepa zaina urratu zion arte. Bizitza honetan eman zioten azken labankada izan zen hura.

Marcelo Argañaraz [©] NAFARROAKO ARGENTINARREN ZENTROKO PRESIDENTEA

«Etorritakoekin eta han daudenekin egiten dugu lan»

soslaia

Misionesen jaioa da Marcelo Argañaraz, Argentinako iparraldean. Sorterriko hainbat hiritan bizi izan da, tartean Rosario, eta Euskal Herrira duela hamar urte allegatu zen. Baditu hemengo arbasoak, baita Andaluziakoak ere.

Argentinatik alde egin zuenetik Iruñean bizi izan da. Nafarroako hiriburuan dagoen Nafarroako Argentinarren Zentroaren sorrera bultzatu zuenetako bat izan zen bera. Hemengo eta Argentinako herrikideen harremana bultzatu du beti.

Zentroak hainbat urte daramatza lanean, 1994. urteaz geroztik, hain zuzen ere. Marcelo Argañaraz presidente izan da azken bi urteotan, baina agertu digu kargua uzteko gogoia, jendaurrean agertzeko ardura taldeko beste kideren batek har dezan.



● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Argentinak bizi duen krisiak egunkarietako orrialdeak bete ditu egunero, joan den abenduan egoerak eztanda egin zuenetik. Milaka argentinar dago sorterritik ihes egin nahian, langabezia eta corralittoa atzean utzi nahian. Hemen bizi diren argentinarrak kezka jarraitzen dute han gertatzen ari dena.

MARCELO ARGANARAZEK hamar urte daramatza Iruñean. Argentinarren Zentrotik, handik etorri nahi dutenak laguntzen saiatzen da, bai eta Argentinan gelditzen direnak ere. Sistema agortuta dagoela dio, eta konponbidea ahalik eta adostasun zabalarekin bilatu beharra dagoela uste du.

■ Nola bizi duzue Argentinan, zuen sorterrian, gertatzen ari dena?

Medioetatik, Internetetik eta gure hango senitarteko eta lagunei egindako deien bidez jasotako informazioa dugu esku artean. Noski, kezkatuta gaude, gaizki. Immigrazioaren ondorioz, bada dena ahazten saiatzen den jendea, eta beste batzuek, une honetan, itzuli egin nahi dugu.

■ Argentinara itzuli?

Bai. Batzuek erraten dizute burutik jota zaudela, baina pro-

zesu pertsonala besterik ez da. Ulertu dugu, hala ere, handik jasotako informazioari esker, baliagarriagoak garela hemen han baino. Han ez diren gauza asko dugu hemen eskura, medioak barne.

■ Jende askok, ordea, Argentinatik alde egin nahi du.

Gure lanak bi ildo ditu. Bate-tik, webgune bat dugu. Abenduaren 20a bitarte hiru, bost,

«Ez gara anarkiaren aldeko; bide zintzo eta argiak erakusten badira, uste dugu jendeak haiekin bat eginen duela; kontua da jendeak egun ez duela inolako konfiantzarik»

zortzi mezu inguru jasotzen genuen astero, hemen lan egiteko aukeraz eta honat etortzeko aukeraz galdezka. Egun horretatik aurrera, 180 mezu jasotzera iritsi gara aste batean. Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariarekin bilerak izan ditugu, bai eta Nafarroako presidentearekin ere, gaia eztabaidatzeko. Espainiako Estatuan hainbat talde ari gara koordinatuta lanean, gehienak argentinarrak. Jendea ailegatzen denean, haiekin lan egin beharra dago, etxebizitzaren gaia, lanarena edo agiriena lantzeko. Finen, etortzen den jendea gaizki dago, hango krisiari ez ezik, immigrante izatearen arazoari ere egin behar diolako aurre.

Bestetik, han gelditzen direnekin ere egiten dugu lan. Ildo

horretan, ekimenak prestatzen ari gara.

■ Nolako ekimenak?

Apirilean, ziurrenik, Argentinako herriari elkartasuna agertzeko astea eginen dugu, hemengo hainbat talderen laguntzaz. Martxoan egin nahi genuen, baina atzeratu dugu, Madrilan ere eginen delako. Hitzaldiak, erakusketak, kontzertuak eta bestelako ekitaldiak izanen dira, baina oraindik erabat zehazteke dago dena. Hango jendeari dagokionez, gure asmoa da, adibidez, sendagaien aferan lagundu ahal izate-

tea. Zalantzak bagenituen: sendagaiak erosiko ditugu eta hara bidali? Han erosiko ditugu? Badira han lor daitezkeen sendagaiak, arazoa da banaketa. Kasu horretan dirua bidali beharko genuke. Beste batzuk ezin dira han lortu, inportazioa etenda dagoelako, eta dolarren prezioaren eraginez; horiek bai, bidali egin beharko genituzke. Gakoa da ditugun baliabideak ahalik eta hobekien erabiltzea.

■ Argentinako krisia ez da bat-batean sortu; uste zenuten, hala ere, iritsi den mailara iritsiko zenik?

Krisia aspalditik dator. Sistema agortu egin dela uste dugu. Ez gara anarkiaren aldeko, ez baita ona; bide zintzo eta argiak erakusten badira, uste dugu jendeak haiekin bat eginen duela. Kontua da jendeak egun ez duela inolako konfiantzarik. Irteera demokratikoa behar dugu; zorionez, egun, Argentinan ez dago beste alternatibarik, ez dugu beste alternatibarik nahi. Sistemak, halaber, Argentinan sortzen ari diren giza mugimenduei egin behar die lekua. Gu kanpo gaude, eta zaila da guretzat jakitea mugimendu horiek benetan demokratikoak eta baliagarriak diren, baina hori kontuan hartu

beharra dago. Ezin ditugu ahaztu diktadura garaian desagertutako 30.000 lagunak ere. Agintari belaunaldi oso bat desagertu zen. Belaunaldi berriak ustelkeriaz jositako sistemarekin hazi dira.


■ Hutsetik hasi behar du, beraz, Argentinak?

Hala da, herria berreraiki beharra dago. Denok dakigu zaila izanen dela. Sistema agortu zaigu, eta berria behar dugu, ahalik eta adostasun zabalarekin.

→ Edurne Elizondo



LABURPENA: Gure heroiak babesle baten bila ardira orain subentziolandiako eremuetan...



Esadazu Petilla: Zer eskatzen du morroiak ESPONSORILANDIAKO UHARTER2 hurbiltzeagatik?



Arima

Birik bai

ez da merke2 gero!

Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Politikan, kasualitate guti

Niri ez zait batere harrigarria iruditzen UPNkoen harropuzkeria. Diputazioan zein Iruñeko udaletxean sozialisten laguntza lortu dute nahi izan duten guztietan gizarte demokratiko batean nekez onar daitezkeen jokamondeak inposatzeko, eta bizikidetzarako oso larriak diren zenbait kasutan (euskaldunen aurkako etengabeko erasoaldian) sozialistek berek bultzatu dute kanpaina. Lizarbek, Dylanena gogoratuz, garaia aldatu dela dio: atzoko adiskideak gaurko etsaiak omen dira. Ez da erraza sozialistek sinistea, Maisonave hoteleko hitzarmen hartatik aunitzetan jan baitute emaniko hitza. Ezin erran hitzeko gizon-emakumeak direla eta, beraz, fede handiena behar da hauei sinisteko: hiruko gobernuaren garaian Otanori kakazturik ez zegoela hirutan errepikatzea erranarazi zion abertzaleak badaki horren berri.

Baina egia bada sozialistak alternatibaren aldeko direla, oraintxe dute aukera hoberena, nola gobernuan hala Iruñeko udaletxean. Irratizentzien aferak egurra emateko aukera paregabea eskainiko lioke alternatiba izan nahi duen edozein demokratari, horretarako borondatearik izanez gero. Palacios kontseilariak Diputazioko bulegoan segitzen duen bitartean, egurra etengabekoa izateko arrazoi garbia dago. Etxebizitza arloan ere egoera negargarria da, Nafarroako Gobernuak ez baita gauza nafar gazte gehienek pairatzen duten arazo larriari aurre egiteko. Eta badira salatu beharreko bertze gauza aunitz, horien artean Oteiza Fundazioaren auzia.

Baina, erran bezala, Iruñeko udaletxean ere ez dirudi egoera hobea denik. Onar dezagun alkate anderea ez dela merkataritza txarra, lotu gabeko proiektuak eduki saltzen dituela, aurreko alkateek baino ilusio handiagoa erakusten duela. Tira, ez dago gaizki, baina legegaldi amaieran behin betiko balantzea saldutakoaren ehuneko bat izanen dela frogatuko dugu. Bidean geldituko dira, bertzeak bertze, Sadar aldeko lakua, autobus geltoki berria eta liburutegi nagusia. Eta Gaztelu plazako aparkalekua? Ez dakit, baina aferagatik auzipeturiko hirutik bik, bat-batean, udaletxetik alde egitea erabaki dute: idazkariak abenduan (karguan urte pare batez segitzeko aukera bazuen ere) eta Labianok aste honetan. Mundu honetan, kasualitate guti. Politikaren munduan, gutiago.

gure aukerak

JAIALDIA

► Iruñea: Amaiur Dantza Taldearen ekimenez, *Hamabi ordu euskaraz* jaialdia egingen da bihar Iruñean, Burgoen plazan, egun osoan.

MUSIKA

► Iruñea: De 2 en Blues Band + Red House taldeen emanaldia izanen da bihar Artsaiak-en, gaueko 23:00etan.

► Tafalla: Curamaguey taldeak kontzertua emanen du gaur gaueko 24:30ean Gabalzeka tabernan.

► Elizondo: Antxiton<Ninguno> ea trinketea, bihar larunbata, Chuchin Ibañez y los chihuahua taldea ariko da, gaueko 24:00etan.

BERTSOLARIAK

► Igantzi: Nafarroako Bertso Ligako aurreneko jardunaldian, Juan Zubieta *Etxabe*, Oskar Estanga, Iñigo Ibarra eta Josetxo Etxenike ariko dira bihar Igantzin.

► Tuter: Bittor Elizagoien, Xabier Legarreta, Mikel Altzuart eta Joseba Beltza izanen dira bertsoan bihar Tuteran.

► Arribe-Atallo: Iñigo Olaetxea, Aritz Saragueta, Xabier Terremos eta Pello Goikoetxea ariko dira bertsoan.

► Baigorri: Igandean Mixel Aire *Xalbador II.a*, Jexus Arzallus, Jean Louis Harinordoki *Laka*, Aitor Sarasua, Eneritz Zabaleta eta Ortzi Idoate ariko dira Iparaldeko Bertso Ligako aurreneko itzuliaren bigarren saioan.

ANTZERKIA

► Aranguren: La Ortiga T.D.S. taldeak *Los Justos* lana antzeztuko du gaur, bihar eta etzi Aranguren bailarako kultur etxean.

ZINEMA

► Iruñea: Gaur, Karrikiren zinemaldiaren baitan, *Chicken run* filma emanen dute Golem-Baiona zinematokietan, euskaraz, 20:30ean.

► Etxarri-Aranatz: *Harry Potter* filma emanen dute asteburu honetan Etxarri-Aranatzko udal zinemaren, iluntzeko 22:15ean.

IKASTAROKAK

► Atarrabia: Kirol Patronatoak eskalada ikastaroa antolatu du. Otsailaren 18an hasiko da, eta Atarrabiako rokodromo berrian egingen dute, astelehen eta ostegunetan, 19:00etatik 20:30era. Informazio gehiago, Indurain Anaïen kiroldegian (948-382255).

► Iruñea: Hitano ikastaroa antolatu

du AEK-k. Hilaren 19an hasiko da, eta Iruñezar euskaltegian izanen da (Errekoletak, 16), astearte eta ostegunetan, 20:00etatik 22:00etara. Informazio gehiago, 948-210433 telefonoan.

HITZALDIAK

► Iruñea: *Euskararen inguruko instituzioak eta mugimendu sozialak frankismoaren garaian* hitzaldia emanen du gaur arratsko 19:30ean Patxi Larrion historialariak. Hitzaldia Nabarrera kultur gunean izanen da.

LEHIAKETAK

► Uitz: Nikolas Ormaetxea Orixe Literatur Sarirako lanak aurkezteko epea hilaren 28an akituko da. Olerki eta narrazio labur sailetan lan bana aurkezten ahal

du egile bakoitzak. Lanek euskaraz egon behar dute eta gaia librekoa da. Sail bakoitzeko saria 600 eurokoa da.

ERAKUSKETAK

► Iruñea: Luis Azanza argazkilariren erakusketa ikusten ahal da Maisonave hotelean martxoaren 7a bitartean.

► Barañain: Izarren herria ezagutzeko, *Planetario bidaiaria* erakusketa kultur etxean izanen da hilaren 22a arte.

► Iruñea: *Mugak zabaltzen* egitasmoaren baitan, Zabaldiko telegian Lourdes Terraza guatemalarraren margolanak daude ikusgai, hilaren 24a arte.

► Iruñea: Lina Yanguas artistak hainbat teknikarekin eginiko lanen erakusketa Ormolu galerian izanen da hila bukatu arte.

Marta Loredó Olaiz

Asteko erakusketa

Izenburua: 'Marta Loredoren azken lanak'

Zer: Pintura erakusketa.

Non: Zizur Nagusiko kultur etxean.

Noiz arte: otsailaren 17a arte.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara.

Igande eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

